



PROSTATAN TRATAMENDU ERRADIOTERAPIKOA EGITEKO BAIMEN INFORMATUA CONSENTIMIENTO INFORMADO PARA TRATAMIENTO RADIOTERÁPICO EN PRÓSTATA

A. IDENTIFIKAZIOA:

MEDIKU ARDURADUNAREN IZENA:
..... Data.....

DIAGNOSTIKOA:
.....

PROPOSATUTAKO TRATAMENDUA:

.....
.....

B. INFORMAZIOA:

Erradioterapia minbizia eta beste gaixotasun batzuk tratatzeko erradiazio ionizatzaileak erabiltzea da. Pazientearen diagnostikoa, tratamendua, zaintzak eta jarraipena ere barne hartzen ditu. Helburua tumorezelulak suntsitzea da, inguruan dituzten ehun osasuntsuak ahalik eta gutxien kaltetuz.

Erradioterapia bidezko tratamendua gaixotasuna kontrolatzeko, hura berriz agertzeko arriskua murrizteko edo sintomak arintzeko erabiltzen da.

Erradioterapia bere horretan edo beste tratamendu batzuekin batera erabil daiteke. Ebakuntza egin aurretik eman daiteke, tumorea txikitu eta kirurgia errazteko. Ebakuntzaren ondoren ere eman daiteke, gaixotasuna berriz agertzeko arriskua txikitzeko. Era berean, kimioterapiarekin batera eman daiteke, haren efektuak indartzeko (erradiokimioterapia).

Tratamendua hasi aurretik, beharrezkoa da plangintza edo simulazio bat egitea. Horrek helburu bat dauka: tumore-motaren, kokapenaren eta tamainaren eta gaixoaren anatomiaren arabera desberdinak diren parametro batzuk ebaztea, hain zuzen ere.

Horretarako, OTA edo eskaner bat egingo da, tratatu beharreko gorputzaren eremua kokatzeko. Beharrezkoa izan daiteke ahotik edo zain barneko injekzio baten bidez kontrastea hartzea.

A. IDENTIFICACIÓN:

NOMBRE DEL MEDICO RESPONSABLE:
..... Fecha:

DIAGNÓSTICO:
.....

TRATAMIENTO PROPUESTO:

.....
.....

B. INFORMACIÓN:

La Radioterapia es el uso de radiaciones ionizantes en el tratamiento de pacientes con cáncer y otras enfermedades. También incluye el diagnóstico, tratamiento, cuidados de soporte y seguimiento del paciente. Su objetivo es destruir las células tumorales causando el menor daño posible a los tejidos sanos que rodean dicho tumor.

El tratamiento con radioterapia se realiza para controlar su enfermedad, disminuir el riesgo de reaparición ó aliviar los síntomas.

La radioterapia puede emplearse como tratamiento único o en combinación con otros tratamientos. Se puede administrar antes de la intervención quirúrgica para disminuir el tamaño del tumor y facilitar la cirugía o después de la misma, para disminuir el riesgo de que la enfermedad reaparezca. Así mismo, se puede administrar con la quimioterapia para potenciar sus efectos (Radioquimioterapia).

Antes de comenzar el tratamiento, es preciso realizar una planificación o simulación del mismo. Su finalidad es determinar una serie de parámetros que variarán según el tipo, localización y extensión del tumor, así como de la anatomía de cada enfermo.

Para ello, se realizará un TAC (escáner) para localizar la zona a tratar y puede ser necesario utilizar contraste oral o introducirlo por vena.



Tratamenduan oso garrantzitsua da zu geldirik eta posizio berean egotea. Horrela erradiazioa zehaztasun handiz emango da eta tumorearen inguruan dauden ehun osasuntsuek ez dute onartutakoa baino dosi handiagoa jasoko. Horregatik, beharrezkoa izan daiteke immobilizatzeko sistemak erabili behar izatea (maskarak).

Tratamenduan ohatila batean etzanda egongo zara, erradioterapia-aparatuaren azpian, eta ez duzu ezer berezirik nabarituko. Une oro telebista-zirkuitu itxi baten bidez zainduko zaituzte.

Tratamendua emateko saio bat edo batzuk emango zaizkizu egunean. Haietako bakoitzak hainbat minutu irauten du. Tratamenduak, guztira, egun bat eta aste batzuen arteko iraupena izan dezake.

C. ARRISKUAK ETA KONPLIKAZIOAK:

Gehienetan, tratamendua ez da arriskutsua, eta ez du nahi gabeko kalterik edo bigarren mailako ondorioak sorrarazten. Batzuetan, ordea, ez da horrela izaten, eta tratamenduak sekuela iraunkorrak utz ditzake, edo bigarren mailako ondorio larriak edo, zenbaitetan, hilgarriak, eragin. Garrantzitsua da zuk prozesu horretan ager litezkeen bigarren mailako ondorioak ezagutzea.

Bigarren mailako ondorio AKUTUAK:

Ondorio akutuek organismo osoari eragiten diote, eta tratamendua amaitu eta gutxira desagertzen dira: nekea, ondoeza, apetitua galtzea, goragaleak eta gorakoa. Ez dira beti agertzen eta intentsitatea oso desberdina da pertsona batetik bestera.

Tratatutako eremuari eta horren barruan dauden barne-organoei eragiten dieten **ondorio akutuek**: Azalean: gorridura eta ezkatatze lehorra (eremu batzuetan, esaterako tolesturetan, ezkatatzea hezea izan daiteke). Ilea erortzea. Ondestean eta/edo hesteetan: Beherakoa, libratzeko gogo (ondesteko tenesmoa) eta obramendu mingarria, ondestetiko odoljarri moderatua eta mukia kanporatzea. Gernu-eta ugaltze-aparatuak: narritadura eta mina gernumaskurian, maizago pixa egiteko gogo eta mina/erredura pixa egitean (zistitisa). Gutxiagotan, gernu-debekua, nahi gabeko gernu-jarioak (inkontinentzia), odola gernuan (hematuria). Funtzio sexualaren murrizketa eta genitaletako edema arina.

Durante el tratamiento es muy importante que permanezca inmóvil y mantenga la misma postura, para administrar la radiación con una precisión elevada y evitar que los tejidos sanos que rodean al tumor reciban más dosis de la tolerada. Por ello, puede ser necesario utilizar sistemas de inmovilización (máscaras).

Durante el tratamiento estará tumbado en una camilla, bajo el aparato de radioterapia y no notará ninguna sensación especial, siendo vigilado en todo momento por un circuito cerrado de televisión.

El tratamiento se realiza en una o varias sesiones diarias, durante unos minutos. La duración total del tratamiento puede variar entre un día y varias semanas.

C. RIESGOS Y COMPLICACIONES:

La mayor parte de las veces el tratamiento no conlleva riesgo, no produce daño ni tiene efectos secundarios indeseables. Pero a veces no es así, pudiendo dejar secuelas permanentes, tener efectos secundarios graves e incluso mortales. Es importante que usted conozca los efectos secundarios que pueden aparecer en este proceso.

Efectos secundarios AGUDOS:

Efectos agudos que afectan al organismo en general, ceden poco después de finalizado el tratamiento: Cansancio, malestar general, pérdida de apetito, náuseas y vómitos. No se presentan siempre y la intensidad varía mucho de unas personas a otras.

Efectos agudos locorregionales que afectan a la zona tratada y a los órganos internos que contiene: Enrojecimiento de la piel y descamación seca que en algunas zonas, como los pliegues, puede llegar a ser una descamación húmeda. Caída del vello. Afectación del recto y/o intestino: Diarrea, sensación de ganas de obrar (tenesmo rectal) y defecación dolorosa, sangrado moderado por recto y expulsión de mucosidad. Afectación del aparato genital-urinario: irritación y dolor de la vejiga de la orina con necesidad de orinar con más frecuencia y con dolor-escozor al orinar (cistitis). Con menor frecuencia retención de orina, escapes involuntarios de orina (incontinencia), sangre en la orina (hematuria). Disminución de la función sexual y ligero edema de genitales.



Bigarren mailako BERANDUKO ondorioak:

Ez dira oso ohikoak. Beherakoa, ondesteko odoljarria, ondesteko estugunea. Azken horrek buxada, infekzioak eta fistulak eragin ditzake. Zistitis kronikoa, pixa maizago eginarazten duena eta zenbaitetan gernuan odola agerrarazten duena. Aldakako hezurretako nekrosia. Iskemia (odol-fluxuaren murrizketa), tronbosia edo zainetako buxada. Tratamenduaren eraginez beste tumore batzuk sortzeko arriskua txikia da.

OSPITALEAK BEHARREZKO DIREN BALIABIDE GUZTIAK JARRIKO DITU ZURE ESKURA, HALAKO KONPLIKAZIOEI AURRE EGITEKO.

D. ESAN IEZAGUZU:

Halakorik baduzu, esan behar diguzu: medikamentuekiko alergiak, koagulazioaren asaldurak, bihotz-biriketako gaixotasunak, protesiak, taupada-markagailuak, egungo medikazioa, edo beste edozein kontu; izan ere, arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna handiagoa izan daiteke haien eraginez.

E. ARRISKU PERTSONALAK:

Egoera pertsonal jakin batzuek eta gaixotasunek (aurretiazko irradiazioaren aurrekariak, diabetesa, arteria-hipertentsioa, anemia...) arriskuen edo konplikazioen maiztasuna edo larritasuna areagotu dezakete. Medikuek eman dizu zure kasuan dauden arrisku zehatzen berri.

F. ORDEZKO AUKERAK:

Horien artean daude kirurgia, brakiterapia (tumorean iturri erradioaktibo bat sartzea), hormona bidezko tratamendua edo zaintzapeko behaketa. Horietako bakoitza erabiltzeko arrazoiak daude, eta beren abantaila eta arazo espezifikoak dituzte.

Atenditzen zaituzten medikuen uste dute komenigarria litzatekeela zuk erradioterapia hartzea duzun gaixotasuna tratatzeko. Izan ere, horrekin lor daitezkeen onurak arazo posibleak baino handiagoak dira.

Efectos secundarios TARDÍOS:

Son poco frecuentes. Episodios de diarrea, sangrado rectal, estrechez rectal que puede llegar a la obstrucción, infecciones y fístulas. Cistitis crónica con aumento de la frecuencia en la micción y ocasionalmente sangre en la orina. Necrosis de los huesos de las caderas. Isquemia (disminución del riego sanguíneo), trombosis u obstrucción venosa. La posibilidad de desarrollo de otros tumores causados por el tratamiento es escasa.

EL HOSPITAL PONDRÁ A SU DISPOSICIÓN LOS MEDIOS NECESARIOS PARA TRATAR ESTAS POSIBLES COMPLICACIONES.

D. AVÍSENOS:

Es necesario que nos advierta de posibles alergias medicamentosas, alteraciones de la coagulación, enfermedades cardiopulmonares, existencia de prótesis, marcapasos, medicaciones actuales o cualquier otra circunstancia, ya que pueden aumentar la frecuencia o la gravedad de riesgos o complicaciones.

E.- RIESGOS PERSONALIZADOS:

Algunas circunstancias personales específicas y enfermedades (antecedentes de irradiación previa, diabetes, hipertensión arterial, anemia...) pueden aumentar la frecuencia o gravedad de riesgos o complicaciones. Su médico le ha informado acerca de los riesgos específicos en su caso.

F. ALTERNATIVAS:

Son la cirugía, la braquiterapia (introducción de fuente radioactiva en el tumor), el tratamiento con hormonas o la observación vigilada. Cada una de ellas tiene indicaciones, ventajas y complicaciones específicas.

Los médicos que le atienden han considerado que sería conveniente que usted reciba radioterapia para el tratamiento de su enfermedad, ya que los beneficios que se pueden obtener de ella, son mayores que los posibles inconvenientes.

Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa: interesdunari jakinarazten zaio bere datu pertsonalak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak tratatuko dituela. Tratamendu HISTORIKO KLINIKOaren helburua da pazientearen historia klinikoko datuak izatea, haren jarraipena egiteko eta asistentzia-jarduera kudeatzeko, interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betez. Datuak jakinaraz dakizkieke Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, GSINi, agintaritza judizialei eta aseguru-erakundeei. Datuak interesdunak berak, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetzako osasun-langileek emandakoak dira. Interesdunak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea du, bai eta haien tratamendua mugatzeko edo aurka egiteko ere. Datuak babesteari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo webgune honetara: <https://www.osakidetza.euskadi.eus/datuenbabesa/>

Información básica sobre protección de datos: Se informa a la persona interesada de que sus datos personales serán tratados por Osakidetza – Servicio vasco de salud. La finalidad del tratamiento HISTORIAL CLINICO es la de disponer de los datos de la Historia Clínica del paciente para el seguimiento del mismo y la gestión de la actividad asistencial, conforme al cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Pueden realizarse comunicaciones de datos al Departamento de Salud del Gobierno Vasco, al INSS, a autoridades judiciales y entidades aseguradoras. Los datos proceden de la propia persona interesada, del Departamento de Salud del Gobierno Vasco y de personal sanitario de Osakidetza. La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento. Podrá ampliar información en materia de protección de datos en la siguiente dirección web: <http://www.osakidetza.euskadi.eus/protecciondatos>

DOKUMENTU HAU SINATZEN DUT ONGI IRAKURRI OSTEAN ETA NIRE ZALANTZAK GALDETU ETA ARGITZEKO AUKERA IZAN OSTEAN. BERAZ, ZER EGIN BEHAR DIDATEN ULERTU ONDOREN, ITXARON DAITEZKEEN EMAITZEN ETA HORTIK ERAGIN DAITEZKEEN ARRISKUEN BERRI IZAN ONDOREN

FIRMO ESTE DOCUMENTO DESPUÉS DE HABERLO LEÍDO Y HABER TENIDO LA OPORTUNIDAD DE PREGUNTAR Y ACLARAR MIS DUDAS. POR TANTO, DESPUÉS DE HABER ENTENDIDO LO QUE SE ME VA A HACER, LOS RESULTADOS ESPERADOS Y LOS RIESGOS QUE DE TODO ELLO PUEDAN DERIVARSE.

| Pazientea/ El Paciente |
|--|
| Pazientearen izen-abizenak Nombre, dos apellidos |
| Sinadura eta data Firma y fecha |
| <div style="border: 1px solid black; border-radius: 15px; height: 60px; width: 100%;"></div> |



Medikua/EI/La Médico

Medikuaren izen-abizenak eta elkargokide-zk.

Nombre, dos apellidos y nº de colegiado del/de la médico/a

Sinadura eta data

Firma y fecha

Legezko Ordezkaria: adingabekorik edo pazientearen ezgaitasunik egotekotan / Representante legal: en caso de incapacidad del paciente o menor de edad

Legezko ordezkariaren izen-abizenak, NAN eta ahaidetasuna

Nombre, dos apellidos, DNI y parentesco del representante legal

Sinadura eta data

Firma y fecha

Pazientearen edo legezko ordezkariaren ATZERA EGITEA / DESISTIMIENTO del paciente o representante legal

Adierazitako prozedurapean EZ JARTZEAREN irismena eta arriskuak ulertzen ditut. Eta halako baldintzetan atzera egiteko eskubidea egikaritzen dut.

Comprendo el alcance y los riesgos de NO SOMETERME al procedimiento indicado. Y en tales condiciones ejerzo mi derecho de desistimiento

Sinadura eta data

Firma y fecha